



Камерадун gizona (Человек с киноаппаратом),
Dziga Vertov, 1929.

ARTE ETA TEKNOLOGIA: IKUS-ENTZUNEZKOAK

Egilea:

Aida Vallejo Vallejo

UPV/EHU



AURKEZPENA:

“Arte eta teknologia: Ikus-entzunezkoak” izeneko kurtsoaren atal bat sortzen dute testu hauek. Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) argitaratu ditu OCW (Open Course Ware) proiektuaren barne.

Kurtso osoa ikusteko, bilatu web-gune honetan: ocw.ehu.es, 6. zk. (2013 urtean), “Giza Zientziak” (“Arte y Humanidades”) atalean .

Nola aipatu:

Vallejo, Aida (2013) “Arte eta teknologia: Ikus-entzunezkoak”, OCW UPV/EHU-an, 6.zk. <http://ocw.ehu.es> (Lizentzia Creative Commons: BY-NC-SA)

Egile eskubideei buruzko argibideak:

Lan hau Creative Commons lizentziapean argitaratuta dago. Horregatik erabiltzaileak kopiatzeko, banatzeko eta komunikatzeko baimena dauka honako baldintza hauek betetzen badira: egilea aipatu, helburu komertzialetarako ez erabili, eta jatorrizko materiala edo egokitutako materiala berriro argitaratzen baditu, hauek libreki lizentzia berdinpean eskaini.

Lan honetan erabilitako irudi gehienak Creative Commons lizentziapean argitaratuta daude. Jatorrizko web-gunea ikusteko, klikatu irudiaren alboko gezia.

Beste kasuetan, irudien autoreak aipatzen dira, Jabetza Intelektualaren legeak betez.

1.º Gaia: **IRUDIA**

1.go Gaia: IRUDIA (aurkibidea)

1. *Argazkigintza analogikoa.*
2. ***Fokuratze eta enkoadraketa.***
3. *Reflex kameraren funtzionamendua (diafragma eta obturazio-abiadura).*
4. *Argazkigintza digitala (formatuak, kalitateak, bereizmena).*
5. *Plano-motak.*

Bigarren parte:

Fokuratze eta enkoadraketa

FOKURATZE



>

Imagen de Kagee publicada en Wikimedia Commons

Fokuratzea
irudiaren
elementuak
modu gardena
edo lausoan
agertzeko
erabiltzen da.

Irudi gardena > lausoa



Imágenes de autoría anónima publicada en Wikimedia Commons

Lehenengo plano fokuratuta/ Hondo desfokuratuta



Imagen de "Mike" Michael L. Baird publicada en Wikimedia Commons

Eskuzko fokuratze



Imagen de Aida Vallejo

Eskuzko fokuratzea (MF: Manual Focus) erabiltzekotan, fokuratuta (garden) geratuko diren elementuak hautatzen ditugu. Objektiboaren aurreko parte biratuz fokuratzen dugu.

Fokuratze automatikoa





Imagen de Aida Vallejo

Fokuratze automatikoa (AF: Auto Focus) erabiltzen badugu, kamerak hautatuko ditu fokuratutako elementuak.

Normalean gertuenak edo koadroan espazio handiena betetzen dutenak fokuratzen du kamerak.

Fokuratze automatikoa



Imágenes de Aida Vallejo

Kamera batzuk koadroaren parte bat hautatzeko aukera ematen dute, fokuratze automatikoa bertan aplikatzeko.

ENKOADRAKETA



Imagen de Juan Ignacio Sánchez Lara publicada en Flickr (CC BY-NC-ND 2.0)

Enkoadraketak lauki barruan agertuko diren elementuak hautatzean datza.

Enkoadraketaren funtzioak:




Imagen de Self publicada en Wikimedia Commons

Lauki barruan edo kanpoan geratzen diren elementuak hautatu.

2. Elementuak antolatu lauki barruan.

Hondoaren garrantzia

Kontuz!:

Lauki edo koadro barruan agertuko diren elementu **GUZTIAK** hautatu behar dira (elementuak ezin dira agertu kasualitatez, bilduma gisa funtzionatu egin behar du irudiak)

Eremua / eremuz kanpoko

Koadro barruan eta kanpoan
agertzen diren elementuen arteko
erlazioaren arabera,
eremu (kanpo)
eta eremuz kanpoko dugu.

Eremua

Koadroaren barruan agertzen diren elementuek *eremua* sortzen dute.

Henri Cartier-Bresson argazkilaria enkoadraketako eta konposizioko maisua izan zen. Honako esteka hauetan bere argazkiak aurkituko dituzu:

[http://www.magnumphotos.com/C.aspx?
VP3=CMS3&VF=MAGO31_10_VForm&ERID=24KL53ZMYN](http://www.magnumphotos.com/C.aspx?VP3=CMS3&VF=MAGO31_10_VForm&ERID=24KL53ZMYN)

<http://www.henricartierbresson.org/>

Eremuz kanpoko

Enkoadraketaren kanpoan geratzen dena da *eremuz kanpoko*.

Kanpoko elementu horiek kanpoan daudela badakigu, objektu edo pertsonaren zatia agertzen delako koadroan edo norbait elementu hori begiratzen ari delako.

Estatu Batuetako gobernuak argitaratutako argazkian eremuz kanpokoaren erabilera ulertzeko adibide ona da. Han, Osama Bin Laderen exekuzioaren lekukoak dira politikariak eta militarrek. Esteka honetan eremuz kanpokoaren kontzeptua aplikatuz egindako irudiaren analisisa aurki daiteke (gaztelaniaz):

<http://palabradepezabisal.blogspot.com.es/2011/05/tipos-de-fuera-de-campo-incluye-un.html>

Koadroaren formaren arabera formatuak

Irudiaren altuera eta zabaleraren arteko erlazioaren arabera, irudi-formatu desberdinak aurki daitezke.

4:3 eta 16:9




Imagen de By Andreas -horn- Hornig, de:Benutzer:Sjr publicada en Wikimedia Commons

Beste formatuak




Imagen de Wikig publicada en Wikimedia Commons